

## **2. Merkatuaren segmentazioa**

Gure enpresa herritar guztiei zuzenduta egongo da, Tolosaldeko biztanleentzako web orri batekin aplikazio bat sortuko baitugu. Horrek esan nahi du zerbitzu hau Internet eta aparatu elektroniko bat duten herritar guztientzat prest dagoela webgunera sartu ahal izateko. Askok ez dituztelako kontuan hartzen Tolosan dauden zerbitzu guztiak.

Nerabeek mahaiak erreserbatu edo jatetxeak bilatu ahal izango dituzte beren kuadrillarekin jateko, Tolosa giro sozial handiko herria baita eta gazteak etxetik kanpo bazkaltzera ateratzen baitira. Era berean, hauek dira teknologia gehien erabiltzen dutenak eta Interneten arropa gehien erosten dutenak, horrela herriko dendak ezagutzeko aukera izango dute. Nerabe horien helduentzat edo gurasoentzat oso erabilgarria izan liteke supermerkatuko eskaintzak ikusteko eta horiek eskuragarri duten guztia ikusteko; era berean, denda horietako jabeek eskuragarri dauden produktu guztiak erakutsi ahal izango dituzte publizitatean dirurik gastatu gabe.

Tolosaren turismoa eso esanguratsua denez, beste hirietatik eta herrialdeetatik etortzen diren pertsonak erabiltzeko aukera izango lukete beraien oporretan edo nalenko bideietan erabiltzeko. Tolosa edo honen hurbil bizitzea ezda beharrezkoa kontu bat sortzeko.